

## **ARGITARATZEKO ARAUAK**

### **Aldizkariaren informazio eta publikazio eremuak**

Munibe Natur Zientziak lan zientifikoak argitaratzen ditu bai Artikuluak baita Oharrak ere, Geologia, Botanika, Zoologia eta Ekologia gaietan. Nahiz eta beste zonalde geografikoetan burutako lanak onartu, Munibe Natur Zientziaren ikerketa eremua Europako Hego-mendebaldea eta Afrikako Ipar-mendebaldea (Paleartiko ipar-mendebaldarra).

Munibe Natur Zientziak Latindex katalogoaren barnean aurki daiteke, bai eta Historical Abstracts, ICYT, Zoological Record, America, History eta Life-n laburtu eta indexatua ere. 2015tik, DOAJ sarbide libreko aldizkarien direktorioan txertatuta dago *Munibe Natur Zientziak* aldizkaria eta beraz, sarbide librea du. Gure webgunearen (<http://www.aranzadi.eus/munibe-natur-zientziak?lang=eu>) erabiltzaileek aukera dute artikuluen edukiak osorik irakurtzeko, deskargatzeko, kopiatzeko, banatzeko, inprimatzeko, bilaketak edo loturak egiteko.

### **Hizkuntza**

Testua, ondoko hizkuntzetan idatzi ahal izango da: ingelera, gaztelera eta euskara. Lanaren hedapena ahalik eta zabalena izan dadin, lana ingelesez argitaratzea gomendatzen da. Argitalpen guztiak, bai Artikuluak baita Oharrak ere, laburpena eta hitz gakoak daramatzate aldizkariaren hiru hizkuntzetan.

### **Helarazitako lanak**

Munibe NZ-era bidalitako lanak, dokumentu bakarrean helaraziko dira, Word formatuan, Times New Roman 12, espazio bikoitza eta aldamen justifikatuekin. 2,5-eko marjinak utziz alde bakoitzean baita orrialdearen goiko eta beheko partean ere. Dokumentuaren orrialdeek zenbakituak beharko dute (zenbakiak, orrialdeen goiko eskuineko marjinan), baita testua osatzen duten lerroek ere.

Idatziak, posta elektronikoz helaraziko dira soilik, honako helbide honetara: [munibecn@aranzadi.eus](mailto:munibecn@aranzadi.eus).

Behin hartu izanaren adierazpena beteta eta sinatuta dagoenean, original baten helarazpen data, lan bakoitzaren bertsio editatuan agertuko den heinean, aldizkariaren

idazkaritzara iristen den egunaren data izango da. Bestetik, original baten onarpen data, lanaren bertsio editatuan agertuko den heinean, Munibe NZ-ko Editore Nagusiak artikuluaren egile nagusiari baiezkoa ematen dioen egunekoa izango da.

Aldizkariak kanpo ebaluaketa sistema zorrotza du. Behin originala igorritakoan eta dokumentu honetan agertzen diren baldintzak betetzen direla bermatzearen, Editore Nagusiak Editore kide bati artikulua bidaliko dio, eta honek berriz bi ikuskatzzaile izendatuko ditu haien aztertu dezaten. Ebaluaketa prozesua bukatzerakoan, Editore Nagusiak egileari baiezkoa eman, baldintza eta aldaketa batzuk betez onartu edo ezezko eman diezaioketan.

Egileari(ei), lanaren onarpenaren, errefusaren edo agin beharreko aldaketan berri emango zaio idatzia jaso eta 2 hilabeteren barruan. Munibe Natur Zientziak aldizkariak argitalpenaren aldizkakotasunari garrantzi handia ematen dio. Autoreak gainera, epeak errespetatu beharko ditu beharrezko moldaketak egin behar badira.

Munibe NZ-ek, argitaratutako lanaren PDF-a eta artikulua argitaratua izan den Munibe CN-aren ale bat helaraziko die autoreei. Munibe CN urtarilean argitaratzen den urtean behineko aldizkaria da. Aurreko edizioan onartuak baina argitaratu gabe geratutako lanak *online first* argitaratuak izango dira.

## Egitura

Artikuluen egiturak honako atalak beharko ditu izan (Oharrek ez dute atal ezberdinik behar, baina paragrafoak nolabaiteko ordena beharko dute izan eta Sarrera, Metodoa, Emaitza eta Eztabaida atalekin bat etorriz):

- Hasierako orrialdearen edukiak:
  - Izenburua. Izenburua minuskuletan idatzia.
  - Izenburu laburtua (gehienez 80 karaktere)
  - Egileen zerrenda. Autoreen izena jarraian adierazten den moduan: “Pedro Larra”, “Pedro Larra-López”, “Pedro M. Larra”.
  - Egileen afiliazioa eta korrespondentziarako autorearen helbide elektronikoa.
- Laburpena. Laburpenak gehienez 250 hitz izango ditu. Artikulua idazteko erabili den hizkuntza berberean eta baita aldizkariaren beste bi hizkuntza ofizialetan idatzia beharko du izan (ingelesa, gaztelera eta Euskara). Laburpena aldizkariaren hiru hizkuntza ofizialetatik bitan soilik bidaltzera dago behartua autorea.

- Gako hitzak. Gehienez 8 gako hitz. Laburpena bezalaxe hauek ere artikulua idatzia izan den hizkuntzan eta aldizkariaren bigarren hizkuntza ofizialen batean idatzi beharko ditu autoreak.
- Sarrera. Ahalik eta labur eta zehatzen izan behar du, gaiaren inguruko ezagutza eta egiten diren ekarpenak azpimarratuz. Lanaren inguruko hipotesi eta helburua(k) ere adierazteko gunea ere izan daiteke, hala nahi izanez gero.
- Materialak eta metodoak. Ikerketa egin den gunea eta denbora epea ere garbi adieraziak behar dute. Ikerketa metodoak, estatistika analisiak baita ikerlariak garrantzitsutzat duen beste edonolako informazioa irakurleari lagungarri izango zaiona lanaren metodologiaren inguruko nondik norakoak ulertzeko. Erabilitako metodologiak, sarreran aipatutako helburuekiko, aproposa behar du izan. Gainera, metodologiaren deskribapena ahalik eta zehatzena izan behar da beste ikertzaileek erabili ahal izateko.
- Emaitzak. Hauen azalpenak, txukuna, laburra eta zehatza behar du izan.
- Diskusioa. Sarreran emandako helburuei eta lortutako emaitzei egokitua eta zehatza behar du izan. Azalpen gogoetatsuak edo eta emaitzetako ondorio ez direnak saihestu behar dira. Behar izanez gero azalpen espekulatiboak ahalik eta motzen izan daitezela.
- Eskerrak. Atal hau hautazkoa da.
- Bibliografia.

Testu barruko bidaltze-marka edo aipu bibliografikoetan, egilearen edo egileen lehen abizena (edo biak, marratxo baten bidez lotuta) idatziko da (izenaren lehen letra idatz daiteke zenbait egile nahasteko aukera badago soilik), baita lana argitaratu den urtea ere, tartean koma bat dagoela (Margalef, 1944) o (Margalef-López, 1944). Egile beraren urte bereko zenbait sarrera badaude, letra xehe bat gehituko da testuko aipuetan eta zerrenda bibliografikoan (adibidez, 1972a, 2006c, eta abar). Bi egile badira, biak aipatuko dira, eta lana argitaratu den urtea (Margalef eta Ponz, 1957). Hiru egile edo gehiago badira, lehen egilearen abizena idatz daiteke, eta horren ostean, *et al.* formula letra etzanean (Margalef *et al.*, 1944). Testu barnean idatzitako bibliografia parentesi artean eta ondoren adierazi den moduan azalduko da: “(Autorea, 1998; Autorea & Autorea, 1998; Autorea *et al.*, 2000)”. Edo, “... Autorea-k (1998) adierazi zuen bezala ...”. Komunikazio pertsonalak aldiz, “Autor (kom. perts.)” moduan adieraziko dira; aurkezten diren datuak, argitaratu gabeak badira berriz, “Autorea (argitaragabe)”; behaketa pertsonalen kasuan, honela adieraziko da “Autorea (obs. perts.)”. Autoreen izena minuskulaz jarriko da (bersaleak eta maiuskulak ezin dira erabili).

Testuko bibliografia azken atala izango da, eta ez zaio zenbakirik jarriko. Egile edo egile-talde bakoitzeko, aipatu nahi diren lanak edizioaren dataren arabera antolatuko dira, eta informazio hau jasoko da jarraian: lanaren izenburua, aldizkariaren izenburua, bolumena eta orrialdeak. Monografia bat bada aldizkari bateko artikulu baten ordez, argitaletxea eta argitaratu den hiria ere adieraziko dira. Lan kolektibo baten kapitulu bat bada, lan hori ere aipatu beharko da eta, horretarako, aurreko irizpideei jarraituko zaie. Esate baterako:

Monografia:

Lewis-Williams, D., 2002. *The Mind in the Cave*. Thames & Hudson, London.

Monografiako kapitula:

Maroto, J., 2014. Localities of Reclau. In: Carbonell, E., Bermúdez de Castro, J.M., Arsuaga, J.L. (Coors.), Pleistocene and Holocene Hunter-Gatherers in Iberia and the Gibraltar Strait: the current archaeological record, 246-255. Universidad de Burgos, Burgos.

Biltzar bateko aktak:

Utrilla, P., Baldellou, V., Bea, M., Montes, L., Domingo, R., 2014. La Fuente del Trucho. Ocupación, estilo y cronología. In: Corchón, S., Menéndez, M. (Eds.), Actas del coloquio Cien años de arte rupestre paleolítico. Centenario del descubrimiento de la cueva de la Peña de Candamo (1914-2014), 119-132, Ediciones Universidad de Salamanca.

Aldizkari bateko artikula:

Velasco-Vázquez, J., Esparza, A., 2016. Muertes ritualizadas en la Edad del Bronce de la Península Ibérica: un enterramiento inusual en Los Rompizales (Quintanadueñas, Burgos). *Munibe Antropología-Arqueología* 67, 75-106.

Artikula aldizkari baten ale berezi batean:

Fontes, L.M., Straus, L.G., González-Morales, M.R., 2016. Lithic raw material conveyance and hunter-gatherer mobility during the Lower Magdalenian in Cantabria, Spain. In: Cacho, C., Iakovleva, L. (Guest Eds.), Landscape Analysis in the European Upper Palaeolithic. Reconstruction of the economic and social activities. Quaternary International 412 (A), 66-81.

Munibe Natur Zientzatako Erredakzioak bibliografiaren bilduma eta erreferentziak era zehatzean berrikusteko eskatzen die egileei (apatzten den bibliografia guztia idatziaren bukaera zerrendatuko da; era berean, bibliografian agertzen diren lanen erreferentzia gutxienez behin agertuko da artikuluan).

Lanak daramatzan taula eta irudi guztiak, dokumentuaren amaieran atxikituko dira. Taula bakoitza orrialde bereiztu batean eta goiburu argibidea aurretik duela. Irudien kasuan ere berdin eta bai bata eta bai besteak, zenbaki arabikoz izendatuko dira (1, 2, 3, ...). Taulak eta irudiak ez dira inolaz ere testuan barneratuak izango, baizik eta agertzen diren ordenan artikulu edo oharraren bukaeran txertatuko dira. Artikulu edo Oharraren testuan taula eta irudiak erreferentziatuak izango dira parentesi artean. Adibidez: “helduek, gazteek baino pisu handiagoa zuten (Taula 1; Ir. 1).” Honez gain, autoreek kalitate handian eta bereiztutak bidaliko dituzte figura guztiak. Gomendagarria da 600 ppp-ko gutxiengo erresoluzioa izatea, EPS, JPG eta TIFF formatuetan.

Datak horrela adieraziko dira “01.01.2010”

### **Espezieen Nomenklatura**

Espezieak izendatzeko, izen zientifikoa erabiliko da eta honen ondoren, egilearen izena idatziko da, Nomenklatura Internazionalaren Kodearen arauak jarraituz (Botanikan, edo Zoologian, kasuaren arabera). Espeziearen izena lehen aldiz aipatua izan ondoren, izen laburtua erabiliko da. Adibidez: “*Sylvia atricapilla* L., 1758”; edo “*S. Atricapilla*”. Espezien izenak beren osotasunean adieraziko dira, lehen aldiz agertzen direnean bai izenburuan, bai laburpenean, baita testuan ere.

Autoretzak saihestu ahal izango dira, egileek izen zientifikoak interpretatzeko erabilitako erreferentzia ezagutzera emanet gero. Hau bereziki erabilgarria izango da, espezie asko barneratzen dituzten lanetan. Adibidez: “Taxoien izendapen eta autoretzarako, Flora Iberikako irispideak jarraitu dira”.

Espeziea izendatzeko erabiltzen den izen arrunta hautazkoa da eta erabili nahi baldin bada, hizki minuskuletan idatzi beharko da. Adibidez: “txinbo kaskabeltz *Sylvia atricapilla* L., 1758”. Behin espeziea izen arruntaz idatzi eta gero, artikulu osoan zehar izen arruntaz adieraziko da. Izen arruntik ez duten espezieak badaude artikuluan, hauek ez erabiltzea gomendatzen da.

## Toponimiak

Leku, eskualde eta herrialdeak izendatzerakoan, toponimia ofiziala erabiliko da.

## ALDIZKARIA ARGITARATZEKO JARRAIBIDE ETIKOAK

Audituek ebaluatutako (*peer-reviewed*) aldizkari batean ikerketa-artikulu bat argitaratzea funtsezko oinarria da jakintza-sare koherente eta errespetatu bat garatzeko. Egileen eta horien erakunde babesleen lanak duen kalitatearen zuzeneko erakuslea da hori. Audituek ebaluatutako ikerketa-artikuluak metodo zientifikoaren euskarri eta adierazle dira. Garrantzitsua da, beraz, argitaratzean parte hartzen duten alderdi guztiengandik espero den jokabide etikoaren arauak adostea; hona alderdiak: egilea, aldizkariaren editorea, aditu ebaluatzalea, argitaratzailea eta elkartearren jabetzeakoak edo babespekoak diren aldizkariak.

Argitaratzailearen funtziogarranzitsuetako bat zera da, erregistro akademikoaren zuzentasunari euste aldera aldizkariaren editoreek egiten duten ahalegin handiari eta aditu ebaluatzaleek askotan egin arren baliorik ematen ez zaion borondatezko lanari babesia ematea. Hala, jardunbide akademikoari gorazarre egitea, sistemak ondo funtzionatzea eta arazoak nahiko ezohikoak izatea. Argitaratzailearen zeregina da komunikazio akademikoari babesia, dedikazioa eta laguntza eskaintza eta bera da, azken finean, jardunbide egokienak erabiltzen direla ziurtatzearen arduraduna.

Konpromisoa dugu publizitateak, berrargitaratzeek edo bestelako diru-sarrera komertzialek argitaratze-erabakietan inpakturik edo eraginik izan ez dezaten. Gainera, Aranzadi Zientzia Elkarteak laguntza eskaintzen du beste aldizkari eta/edo argitaratzaileekin izaten diren komunikazioetan, baldin eta editoreentzat lagungarria bada. Azkenik, elkarlan estua dugu aholku espezializatuak emateko ere. beste

argitaratzaile eta industria-elkarrekin, etika-kontuetan, akatsetan eta atzera-egiteetan jardunbide egokiak izateko arauak ezartzeko eta gainera, badugu gaitasuna lege arloko azterketa eta.

### **Egileen betebeharrak**

#### -Txostenak egiteko arauak

Jatorrizko ikerketen txostenen egileek egindako lanaren azalpen zehatzak aurkeztu behar dituzte; baita egindakoaren garrantziaren azalpen objektibo bat ere. Lanaren oinarrian dauden datuak ere zehatz aurkeztu behar dira ikerketa-artikuluan. Beste norbaitek kopia bat egin ahal izateko adina xehetasun eta erreferentzia izan behar ditu ikerketa-artikuluak. Iruzurrezko adierazpenak edo nahita oker adierazitakoak jokabide ez-etikotzat ditugu eta ez ditugu onartzen.

Berrikuspenek eta argitalpen profesionaletako ikerketa-artikuluek ere zehatzak eta objektiboak izan behar dute eta ‘iritzi’ editoriala jasotzen duten lanetan argi adierazi behar da gisa horretakoak direla.

#### -Datuetarako sarbidea eta datuak atxikitzea

Egileei eska daki ikerketa-artikulu bati lotutako datu landu gabeak aurkez ditzatela berrikuspen editorialerako eta datu horietarako sarbide publikoa emateko prest egon behar dute hala egin daitekeenean. Horrez gain, argitaratu ondoren, datu horiek zentzuzko epe batean atxikitzeko ere prest egon behar dute.

#### -Originaltasuna eta plagioa

Egileek ziurtatu behar dute idazten dituzten lanak erabat originalak direla eta beste batzuen lana eta/edo hitzak erabiltzen baditzte, erreferentziatan edo aipuetan behar bezala jaso behar dituzte.

Plagioak askotarikoak izaten dira; adibidez, beste baten ikerketa-artikulua egilearena balitz bezala aurkeztea, beste baten lanaren zati garrantzitsuak kopiatzea edo parafraseatzea (hari egile-izaera aitortu gabe), edota beste batzuek egindako ikerlanen

emaitzak nork bere egitea. Plagioa, dituen modu guzietan, jokabide ez-etikoa da argitaratzeetan eta onartezina da.

#### -Argitaratze anizkunak, erredundanteak edo aldi berekoak

Egileek, oro har, ez lituzkete aldizkari edo argitalpen nagusi batean baino gehiagotan argitaratu behar funtsean ikerketa bera deskribatzen duten eskuizkribuak. Eskuizkribu bat aldizkari batera baino gehiagotara aldi berean aurkeztea jokabide ez-etikoa da argitaratzeetan eta onartezina da.

Egileek, oro har, ez lukete lehendik argitaratuta duten ikerketa-artikulu bat beste aldizkari batera proposamen gisa bidali behar. Ikerketa-artikulu mota batzuk (adibidez, jarraibide klinikoak, itzulpenak) aldizkari batean baino gehiagotan argitaratzea justifikagarria da batzuetan, baldin eta zenbait baldintza betetzen badira. Aldizkarietako egileak eta editoreak ados jarrita egin behar dira bigarren argitaratzeak (hala dagokionean) eta hasierako dokumentuaren datu eta interpretazio berdinak jaso behar ditu bigarrenak ere. Hasierako laneko erreferentziak jaso behar dira bigarren argitaraldian.

#### -Iturriak adieraztea

Besteen lana behar bezala aitortu behar da beti. Egileek aipatu egin behar dituzte egin duten lanaren izaera zehaztean eragina izan duten argitalpenak. Modu pribatuan eskuratutako informazioa, hala nola elkarritzetan, korrespondentzian edo hirugarren batekin izandako eztabaidan eskuratutakoa, ez da erabili edo aipatu behar, baldin eta datuen iturriaren berariazko baimen idatzirik ez bada. Zerbitzu konfidentzialetan eskuratutako informazioa, hala nola eskuizkribuak epaitzeko lanetan edo beka-eskaeretan lortutakoa, ez da erabili behar, baldin eta zerbitzu horietako lanaren egilearen berariazko baimen idatzirik ez bada behintzat.

#### -Ikerketa-artikuluaren autoretza

Egileen artean, azterlana sortzen, diseinatzen, gauzatzen edo interpretatzen ekarpen garrantzitsua egin dutenak bakarrik sartu behar dira. Ekarpen garrantzitsua egin duten guztiak sartu behar dira egilekideen zerrendan. Ikerketa-proiektuaren alderdi

garrantzitsuetan parte hartu duen beste pertsonarik balego, horien lana ere aitortu egin behar da kolaboratzaileen zerrendan.

Dagokion egileak ziurtatu behar du parte hartu duten eta ikerketa-artikuluan sartu beharreko egilekide guztiak sartuta daudela eta sartu behar ez direnak ez daudela sartuta. Horrez gain, ziurtatu behar du egilekide guztiekin ikusi eta onetsi dutela ikerketa-artikuluaren azken bertsioa eta ados daudela argitaratzearkin.

#### -Zabalkundea eta interes-gatazkak

Egile guztiekin adierazi behar dituzte eskuizkribuetan izandako finantza arloko edo bestelako interes-gatazka garrantzitsuak, eskuizkribuaren emaitzetan edo interpretazioan eragina izan badezakete. Proiektuak jasotako finantza-laguntzaren iturri guztiak adierazi behar dira.

#### -Funtsezko akatsak argitaratutako lanetan

Egile batek argitaratu dioten lanean akats edo oker nabarmen bat aurkitzen duenean, betebeharra du aldizkariaren editoreari edo argitaratzaileari berehala horren berri eman eta editorearekin batera ikerketa-artikulua atzera botatzeko edo zuzentzeko elkarlanean aritzeko. Editoreak edo argitaratzaleak hirugarren batek adierazita jakiten badu argitaratutako lan batek akats nabarmen bat duela, egileak ikerketa-artikulua berehala atzera botatzeko edo zuzentzeko, edota editoreari jatorrizko ikerketa-artikulua zuzen dagoela erakusten duten frogak aurkezteko betebeharra du.

### **Editoreen betebeharak**

#### *-Argitaratze-erabakiak*

Audituek ebaluatzen duten aldizkari honen editore nagusiak du aldizkarira heltzen diren ikerketa-artikuluetatik zein argitaratuko den erabakitzeko ardura eta askotan, dagokion elkartarekin batera arituko da lanean (elkartaren jabetzakoak edo babespekoak diren aldizkarietan). Lan bakoitzaren balioa eta ikertzaileentzat eta irakurleentzat duen garrantzia izango dira beti erabaki horiek hartzeko irizpideak. Editore nagusiak gidari izango ditu aldizkariaren argitaratze-batzordearen irizpideak eta muga izango ditu, berriz, une bakoitzean kalumnien, copyright arau-hausteen eta plagioaren inguruan

indarrean diren lege-xedapenak. Editoreak beste editore edo ebaluatzaire batzuei (edo elkarteko arduradunei) kontsulta egin ahal izango die erabakia hartzeko.

*-Joko garbia*

Editoreak, eskuizkribuak ebaluatzean, eduki intelektualari erreparatu behar dio, edozein direla ere egileen arraza, generoa, sexu-orientazioa, erlijio-sinesmena, jatorri etnikoa, herritartasuna edo filosofia politikoa.

*-Konfidentzialtasuna*

Editore nagusiak eta erredakzio-taldeko kideek ez diote jasotako eskuizkribuei buruzko informaziorik emango egilea, ebaluatzairea, ebaluatzalea izateko hautagaia, beste argitaratze-aholkularia eta argitaratzalea ez den beste inori.

*-Zabalkundea eta interes-gatazkak*

- Aurkeztutako eskuizkribuetan sartutako material argitaragabea ezingo da erabili editorearen ikerketa propietan, egilearen berariazko idatzizko baimenik gabe behintzat.
- Informazio pribilegiatura edo kide ebaluatzaleen bidez lortutako ideiak konfidentzialtasunez tratatu behar dira eta ez dira norberaren onurarako erabili behar.
- Editoreek uko egin behar diote interes-gatazkak sortzen dizkienetan eskuizkribuak aztertzeari (koeditore, editore-kide edo argitaratze-batzordeko beste kide bat) eskatu behar lioke berrikuspena egin eta erabakia har dezala); hau da, ez dituzte eskuizkribuak aztertu behar, baldin eta egileekin, enpresekin edo ikerketa-artikuluei lotuta egon daitezkeen erakundeekin lehia, lankidetza edo beste mota bateko harremana edo lotura badute.
- Editoreek kolaboratzaile guztiei eskatu behar die azal ditzatela dituzten lehia-interesak eta zuzenketak argitaratu behar dituzte, baldin eta, ikerketa-artikulua argitaratu ondoren lehia-interesak daudela ikusten bada. Behar izanez gero, beste ekintza batzuk ere egin behar dira; hala nola atzera-egite ohar bat edo irregularitasun-adierazpen bat argitaratzea.
- Babestutako gehigarrietan, ziurtatu egin behar da adituen ebaluazio-prozesua aldizkari nagusian erabiltzen denaren berdina dela. Babestutako gehigarrietako

elementuak merezimendu akademikoa eta irakurleen interesa bakarrik kontuan hartuta onartu behar dira eta ez irizpide komertzialek eraginda.

- Adituek ebaluatu gabeko atalak argi identifikatu behar dira.

#### *-Partaidetza eta lankidetza ikerketetan*

Editoreek, argitaratzailearekin (edo elkartearrekin) batera, neurri eraginkorrak hartu behar dituzte aurkeztutako eskuizkribu bati edo argitaratutako ikerketa-artikulu bati buruz kexa etikoak jasotzen direnean. Neurri horien artean egongo dira, normalean, eskuizkribuaren edo ikerketa-artikuluaren egilearekin harremanetan jartzea eta egindako kexa edo erreklamazioei dagokien arreta eskaintzea, bai eta jakinarazpen gehiago egitea ere dagokion erakunde eta ikerketa-erakundeetara. Kexa berretsi egiten bada, zuzenketa, atzera-egitea, irregularitasun-adierazpena edo beste oharren bat argitaratu beharko da, hala badagokio. Argitaratzeetan salatzen diren jokabide ez-etiko guztiak sakon aztertu behar dira, baita argitaratu eta handik urteetara egindakoak ere.

#### **Ebaluatzileen betebeharrak**

##### *-Ekarpena argitaratze-erabakietan*

Audituen ebaluazioek editore nagusiari eta editore gonbidatuari lagundu egiten diete argitaratze-erabakiak hartzen eta egilearekin argitaratzearen inguruko komunikazioak gauzatuz, egileari ere laguntzen diote ikerketa-artikulua hobetzen. Audituen ebaluazioa funtsezko osagaia da komunikazio akademiko formalean; metodo zientifikoaren muina da. Arantza Zientzia Elkartearen iritziz, beste askoren iritziarekin bat eginez, argitalpenetan parte hartu nahi duten aditu guztiekin dute audituen ebaluazio horietan bidezko neurrian parte hartzeko betebeharra.

##### *-Garaiz ibiltzea*

Epaile-lanak egiteko aukeratzen den pertsonak uste badu ez duela eskuizkribu batean helarazitako ikerlana ebaluatzeko gaitasunik, edo baldin badaki ezingo duela ebaluazioa garaiz egin, editoreari jakinarazi behar dio eta ebaluazio-prozesutik kanpo gelditu behar du.

##### *-Konfidentzialtasuna*

Ebaluatzeko jasotzen diren eskuizkribuak konfidentzialtasunez tratatu behar dira. Ez zaizkio eskuizkribuak inori erakutsi behar, ezta inorekin eztabaidatu ere, baldin eta editoreak horretarako baimenik ematen ez badu behintzat.

*-Objektibotasun-arauak*

Ebaluazioak objektibotasunez egin behar dira. Egileari kritika pertsonala egitea desegokia da. Epaile-lanak egiten dituztenek haien ikuspuntuak argi azaldu eta argudioen bidez babestu behar dituzte.

*-Iturriak aitortzea*

Ebaluatzailaek identifikatu egin behar dituzte egileek aipatu gabe utzitako lan argitaratuak. Ohar, ondorio edo argudio bat lehendik azaldu izanaren inguruko adierazpenekin batera, dagozkien aipuak adierazi behar dira. Ebaluatzaila batek editorea ohartarazi egin behar du, baldin eta ebaluatzen ari den eskuizkribuaren eta ebaluatzailaek ezagutzen duen beste ikerketa-artikulu argitaratu baten artean antzekotasun nabarmenik aurkitzen badu.

*-Zabalkundea eta interes-gatazkak*

Aurkeztutako eskuizkribuetan sartutako material argitaragabea ezingo da erabili ebaluatzairearen ikerketa propietan, egilearen berariazko idatzizko baimenik gabe behintzat. Informazio pribilegiatura edo kide ebaluatzileen bidez lortutako ideiak konfidentzialtasunez tratatu behar dira eta ez dira norberaren onurarako erabili behar. Ebaluatzailaek ez dituzte aztertu behar interes-gatazkak sortzen dizkieten eskuizkribuak; hau da, ez dituzte ebaluatu behar, baldin eta egileekin, enpresekin edo ikerketa-artikuluei lotutako erakundeekin lehia, lankidetza edo beste mota bateko harremana edo lotura badute.

## **PUBLICATION GUIDELINES JOURNAL**

### **Aims and target areas**

Munibe CN publishes scientific studies, both Articles and Notes, in any of the following disciplines: Geology, Botanics, Zoology and Ecology. The geographic area for the studies published in Munibe CN will be SW Europe and NW Africa (i.e., the SW Palaearctic region). Munibe CN, however, could also consider studies carried out in other regions.

Munibe CN is indexed in Latindex, Historical Abstracts, ICYT, Zoological Record, America, History, Life. Since 2013, *Munibe Ciencias Naturales* has been included in the Directory of Open Access Journals (DOAJ) and is therefore a full open-access journal. Users of the website (<http://www.aranzadi.eus/munibe-naturzentziak?lang=en>) are free to read, download, copy, distribute, print, search or link to the full content of each article.

### **Language**

The text will be written in one of the following languages: English, Spanish or Basque. With the aim of maximizing diffusion, works are recommended to be published in English. All the publications, either Articles or Notes, will have an abstract and key words in the three official languages of Munibe CN.

### **Sending works**

Works for Munibe CN will be sent in a single document, in Word, Times New Roman, size 12, double spaced and justified. Margins will be of 2.5 cm. Pages will be numbered (numbers will appear in the upper right corner of the page), as well as the text lines.

Works will be sent only by email to: [munibecn@aranzadi.eus](mailto:munibecn@aranzadi.eus).

The reception date of a work will be the date when the acknowledgement receipt is received by the Secretary of the journal. The work will be officially accepted for its publication in Munibe CN when the Chief Editor confirms its acceptation to the corresponding author.

Munibe CN has a peer-reviewed evaluation system of the work. Once a work is received, the Chief Editor will send it for evaluation to an Associated Editor. This

Associated Editor will send the work to two external reviewers. After evaluation, the work will be sent back to the Chief Editor via the Associated Editor. The Chief Editor will communicate to the corresponding author the decision, which can be: the work is accepted as it is, the work can be accepted after changes, or the work is rejected.

The author(s) will have a peer-reviewed evaluation within 2 months following the reception of the work. Deadlines are very important for Munibe CN, and authors are encouraged to meet the deadlines indicated by the journal in the reviewing process.

Munibe CN will send to the author(s) a pdf of the publication, as well as a hard copy of the volume where his/her/their work has been published. Munibe CN publishes one volume per year, usually in January. In addition, accepted works will be published *online first* throughout the year.

## Structure

Only in Articles, the work will be organized in the following sections (in Notes, no sections will be considered, although the paragraphs should fit the classical sections of Introduction, Methods, Results and Discussion).

- First page will include:
  - Title, which will not be capitalized.
  - Short title (maximum: 80 characters).
  - Author(s). The name of the authors will be written as following: “Pedro Larra”, “Pedro Larra-López”, “Pedro M. Larra”.
  - Contact address will be specified for all authors. The email address will also be provided for the corresponding author.
- The abstract will not exceed 250 words. It will be written in the language of the rest of the work and, in addition, in the other two official languages of the journal (English, Spanish, Basque). The author must send the abstract in at least two of the languages mentioned above.
- Key words. Maximum 8. Like the abstract, key words must be written in the three official languages. The author must send the key words in at least two of the above mentioned languages.
- Introduction. It must be as brief as possible, concise, and highlight the background of the study subject. Also, it will highlight the interest and justification of the work. If needed, the hypotheses will be stated with clarity, as well as the aim(s) of the work.

- Study area and methods. It must be clearly indicated the study area, period, methods, statistical analyses, as well as all that information necessary to properly understand the methods used. The methods must be in concordance with the aims stated in the Introduction.
- Results. They must be shown briefly and concisely.
- Discussion. It must be also concise, and fit the aims stated in the Introduction and the Results. Speculation must be avoided, as well as comments not directly associated with the results of the work. If necessary, speculation must be reduced to a minimum.
- Acknowledgements. This section is optional.
- Bibliography.

Bibliographic references or citations within the text will include the first surname (or both, hyphenated) of the author/authors (the first name initial is only included if there may be confusion between different authors) and the year of publication, separated by a comma (Margalef, 1944) or (Margalef-López, 1944). If there are several entries for the same author and year, a lowercase letter will be added to the references in the text and the bibliographic list (e.g. 1972a, 2006c, etc.). If there are two authors, both will be specified and the year of publication (Margalef and Ponz, 1944). When there are three authors or more, the reference can be written by including the surname of the first signatory and the “*et al.*” formula (in italics) (Margalef *et al.*, 1944). The bibliography will be included as the final section of the text, and will not be numbered. For each author or group of authors, the papers cited will follow the same order as their date of publication, and include the following information: title of the paper, title of the journal, volume and pages. If it is a monograph instead of a journal article, it should be followed by the publisher and the city of publication. If it is a chapter from a collective work, this should also be cited, combining the above criteria. For example:

Monograph:

Lewis-Williams, D., 2002. *The Mind in the Cave*. Thames & Hudson, London.

Monograph chapter:

Maroto, J., 2014. Localities of Reclau. In: Carbonell, E., Bermúdez de Castro, J.M., Arsuaga, J.L. (Coors.), Pleistocene and Holocene Hunter-Gatherers in Iberia and the

Gibraltar Strait: the current archaeological record, 246-255. Universidad de Burgos, Burgos.

Conference proceedings:

Utrilla, P., Baldellou, V., Bea, M., Montes, L., Domingo, R., 2014. La Fuente del Trucho. Ocupación, estilo y cronología. In: Corchón, S., Menéndez, M. (Eds.), Actas del coloquio Cien años de arte rupestre paleolítico. Centenario del descubrimiento de la cueva de la Peña de Candamo (1914-2014), 119-132, Ediciones Universidad de Salamanca.

Journal article:

Velasco-Vázquez, J., Esparza, A., 2016. Muertes ritualizadas en la Edad del Bronce de la Península Ibérica: un enterramiento inusual en Los Rompizales (Quintanadueñas, Burgos). *Munibe Antropología-Arqueología* 67, 75-106.

Article in a special issue of a journal:

Fontes, L.M., Straus, L.G., González-Morales, M.R., 2016. Lithic raw material conveyance and hunter-gatherer mobility during the Lower Magdalenian in Cantabria, Spain. In: Cacho, C., Iakovleva, L. (Guest Eds.), Landscape Analysis in the European Upper Palaeolithic. Reconstruction of the economic and social activities. *Quaternary International* 412 (A), 66-81.

The Editorial Staff of the journal require that all bibliography mentioned in the text should correspond exactly with the list at the end of the manuscript (In addition, all works mentioned in the bibliography section must be mentioned at least once on the body of the text).

At the end of the text (i.e., after the Bibliography section), the author will insert both Tables and Figures. Each Table will appear in a different page, and will have a brief text explaining the content of the Table. The Table must be self-explained. The same is applicable for the Figures. Both Tables and Figures will be numbered with Arabic numbers (1, 2, 3...). Tables and Figures will never be inserted throughout the main text

of the document. The Tables and Figures will be cited, in brackets, throughout the text. Example: “adults were heavier than juveniles (Table 1; Fig. 1)”. To guarantee a high-quality printing (ca. 250/300 “dpi) of the figures (photos, maps, etc.), they must be also sent as a high-quality TIFF or JPEG file.

Dates will be written as “01.01.2010”.

### **Taxonomical remarks**

Species will be mentioned using the scientific name, followed by the author, according to the rules stated by the International Codes of Nomenclature. After being first mentioned, the species’ name will be abbreviated. Example: “*Sylvia atricapilla* L., 1758”; or “*S. atricapilla*”. Species will be written fully the first occasion they appear in the title, abstract and main text. Species’ authors can be omitted if the reference work is cited. This is particularly applicable in works where many species are considered. Example: “For the nomenclature and taxa’s authorship we have followed Iberian Flora”. The use of the species’ common names is optional, and in this case it will not be capitalized. Example: “blackcap *Sylvia atricapilla* L., 1758”. Once first mentioned, the common name will be used throughout the rest of the text. In works where not all the species cited have a common name, we recommend to not use common names.

The use of the species’ common names is optional, and in this case it will not be capitalized. Example: “blackcap *Sylvia atricapilla* L., 1758”. Once first mentioned, the common name will be used throughout the rest of the text. In works where not all the species cited have a common name, we recommend to not use common names.

### **Geographic and Political regions and sites**

When mentioned places and regions, only the official place names are admitted.

## **ETHICAL GUIDELINES FOR JOURNAL PUBLICATION**

The publication of an article in a peer-reviewed journal is an essential building block in the development of a coherent and respected network of knowledge. It is a direct reflection of the quality of the work of the authors and the institutions that support them. Peer-reviewed articles support and embody the scientific method. It is therefore important to agree upon standards of expected ethical behaviour for all parties involved

in the act of publishing: the author, the journal editor, the peer reviewer, the publisher and the society of society-owned or sponsored journals.

An important role of the publisher is to support the extensive efforts of journal editors, and the often unsung volunteer work undertaken by peer reviewers in maintaining the integrity of the scholarly record. It is a tribute to scholarly practice that the system works well and problems are comparatively rare. The publisher has a supporting, investing and nurturing role in the scholarly communication process and is also ultimately responsible for ensuring that best practices are followed.

We are committed to ensuring that advertising, reprint or other commercial revenue has no impact or influence on editorial decisions. In addition, the Society of Sciences Aranzadi will assist in communications with other journals and/or publishers where this is useful to editors. Finally, we are working closely with other publishers and industry associations to set standards for best practices on ethical matters, errors and retractions - and are prepared to provide specialized legal review and counsel if necessary.

### **Duties of authors**

#### **-Reporting standards**

Authors of reports of original research should present an accurate account of the work performed as well as an objective discussion of its significance. Underlying data should be represented accurately in the paper. A paper should contain sufficient detail and references to permit others to replicate the work. Fraudulent or knowingly inaccurate statements constitute unethical behavior and are unacceptable.

Review and professional publication articles should also be accurate and objective, and editorial ‘opinion’ works should be clearly identified as such.

#### **-Data access and retention**

Authors may be asked to provide the raw data in connection with a paper for editorial review, and should be prepared to provide public access to such data, if practicable, and should in any event be prepared to retain such data for a reasonable time after publication.

#### -Originality and plagiarism

The authors should ensure that they have written entirely original works, and if the authors have used the work and/or words of others, that this has been appropriately cited or quoted.

Plagiarism takes many forms, from ‘passing off’ another’s paper as the author’s own paper, to copying or paraphrasing substantial parts of another’s paper (without attribution), to claiming results from research conducted by others. Plagiarism in all its forms constitutes unethical publishing behavior and is unacceptable.

#### -Multiple, redundant or concurrent publication

An author should not in general publish manuscripts describing essentially the same research in more than one journal or primary publication. Submitting the same manuscript to more than one journal concurrently constitutes unethical publishing behavior and is unacceptable.

In general, an author should not submit for consideration in another journal a previously published paper. Publication of some kinds of articles (e.g. clinical guidelines, translations) in more than one journal is sometimes justifiable, provided certain conditions are met. The authors and editors of the journals concerned must agree to the secondary publication, which must reflect the same data and interpretation of the primary document. The primary reference must be cited in the secondary publication.

#### -Acknowledgement of sources

Proper acknowledgment of the work of others must always be given. Authors should cite publications that have been influential in determining the nature of the reported work. Information obtained privately, as in conversation, correspondence, or discussion with third parties, must not be used or reported without explicit, written permission from the source. Information obtained in the course of confidential services, such as refereeing manuscripts or grant applications, must not be used without the explicit written permission of the author of the work involved in these services.

#### -Authorship of the paper

Authorship should be limited to those who have made a significant contribution to the conception, design, execution, or interpretation of the reported study. All those who have made significant contributions should be listed as co-authors. Where there are others who have participated in certain substantive aspects of the research project, they should be acknowledged or listed as contributors.

The corresponding author should ensure that all appropriate co-authors and no inappropriate co-authors are included on the paper, and that all co-authors have seen and approved the final version of the paper and have agreed to its submission for publication.

-Disclosure and conflicts of interest

All authors should disclose in their manuscript any financial or other substantive conflict of interest that might be construed to influence the results or interpretation of their manuscript. All sources of financial support for the project should be disclosed.

-Fundamental errors in published works

When an author discovers a significant error or inaccuracy in his/her own published work, it is the author's obligation to promptly notify the journal editor or publisher and cooperate with the editor to retract or correct the paper. If the editor or the publisher learns from a third party that a published work contains a significant error, it is the obligation of the author to promptly retract or correct the paper or provide evidence to the editor of the correctness of the original paper.

**Duties of editors.**

*-Publication decisions*

The main editor of this peer-reviewed journal is responsible for deciding which of the articles submitted to the journal should be published, often working in conjunction with the relevant society (for society-owned or sponsored journals). The validation of the work in question and its importance to researchers and readers must always drive such decisions. The main editor may be guided by the policies of the journal's editorial board and constrained by such legal requirements as shall then be in force regarding libel,

copyright infringement and plagiarism. The editor may confer with other editors or reviewers (or society officers) in making this decision.

*-Fair play*

An editor should evaluate manuscripts for their intellectual content without regard to race, gender, sexual orientation, religious belief, ethnic origin, citizenship, or political philosophy of the authors.

*-Confidentiality*

The main editor and any editorial staff must not disclose any information about a submitted manuscript to anyone other than the corresponding author, reviewers, potential reviewers, other editorial advisers, and the publisher, as appropriate.

*-Disclosure and conflicts of interest*

- Unpublished materials disclosed in a submitted manuscript must not be used in an editor's own research without the express written consent of the author.
- Privileged information or ideas obtained through peer review must be kept confidential and not used for personal advantage.
- Editors should recuse themselves (i.e. should ask a co-editor, associate editor or other member of the editorial board instead to review and consider) from considering manuscripts in which they have conflicts of interest resulting from competitive, collaborative, or other relationships or connections with any of the authors, companies, or (possibly) institutions connected to the papers.
- Editors should require all contributors to disclose relevant competing interests and publish corrections if competing interests are revealed after publication. If needed, other appropriate action should be taken, such as the publication of a retraction or expression of concern.
- It should be ensured that the peer-review process for sponsored supplements is the same as that used for the main journal. Items in sponsored supplements should be accepted solely on the basis of academic merit and interest to readers and not be influenced by commercial considerations.
- Non-peer reviewed sections of their journal should be clearly identified.

*-Involvement and cooperation in investigations*

An editor should take reasonably responsive measures when ethical complaints have been presented concerning a submitted manuscript or published paper, in conjunction with the publisher (or society). Such measures will generally include contacting the author of the manuscript or paper and giving due consideration of the respective complaint or claims made, but may also include further communications to the relevant institutions and research bodies, and if the complaint is upheld, the publication of a correction, retraction, expression of concern, or other note, as may be relevant. Every reported act of unethical publishing behavior must be looked into, even if it is discovered years after publication.

**Duties of reviewers**

*-Contribution to editorial decisions*

Peer review assists the main editor and guest editor in making editorial decisions and through the editorial communications with the author may also assist the author in improving the paper. Peer review is an essential component of formal scholarly communication, and lies at the heart of the scientific method. The Society of Sciences Aranzadi shares the view of many that all scholars who wish to contribute to publications have an obligation to do a fair share of reviewing.

*-Promptness*

Any selected referee who feels unqualified to review the research reported in a manuscript or knows that its prompt review will be impossible should notify the editor and excuse himself from the review process.

*-Confidentiality*

Any manuscripts received for review must be treated as confidential documents. They must not be shown to or discussed with others except as authorized by the editor.

*-Standards of objectivity*

Reviews should be conducted objectively. Personal criticism of the author is inappropriate. Referees should express their views clearly with supporting arguments.

*-Acknowledgement of sources*

Reviewers should identify relevant published work that has not been cited by the authors. Any statement that an observation, derivation, or argument had been previously reported should be accompanied by the relevant citation. A reviewer should also call to the editor's attention any substantial similarity or overlap between the manuscript under consideration and any other published paper of which they have personal knowledge.

*-Disclosure and conflict of interest*

Unpublished materials disclosed in a submitted manuscript must not be used in a reviewer's own research without the express written consent of the author. Privileged information or ideas obtained through peer review must be kept confidential and not used for personal advantage. Reviewers should not consider manuscripts in which they have conflicts of interest resulting from competitive, collaborative, or other relationships or connections with any of the authors, companies, or institutions connected to the papers.